

MERKATARITZA AUZIA. Europako Batasunak ontzat hartu du AEBek 'altzairuaren gerra komertziala' arintzeko egindako urratsa, baina Washingtonen aurkako salaketari eutsi dio

ENPRESAK

AOLeko buruek aurreikuspen baikorregiak egin dituzte akzioak saltzeko

Erredakzioa | DONOSTIA

AEBetako merkatu agintariak (SEC) AOL Time Warner munduko lehen komunikazio taldea ikeretzen ari dira. Ikerketa hipotesiaren arabera, AOLek bere emaitzen aurreikuspen baikorregiak egin zituen iaz, ondoren akzioak prezio onean saldu ahal izateko.

Iaz otsaila eta ekaina bitartean egindako akzio salmenta horren bitartez, AOLeko hamabost goi karguk, Steve Case presidentea barne, 500 milioi dolarren irabaziak lortu zituzten.

Gainera, SEC balio merkatuko batzordea AOLek Qwest eta Worldcom telekomunikazio enprekin egin eragiketa batzuk ere ikertzen ari da. Dirudienez, eragiketetan Steve Case buru duen taldeak bere diru sarrerak puztu egin zituen.

Qwest eta Worldcom azkenaldian sortutako finantza iruzurren protagonistetako bi izan dira; bereziki Worldcom, historiako kiebrarik handiena jo eta gero.

Gainera, atzo jakin zen New York estatuko fiskaltza munduko finantza erakunderik handiena den Citigroupeko presidentea Sanford Weill ikertzen ari direla.

Orain bi urte Salomon Smith inbertsio taldeak AT&T telefonia konpainiaren gaineko aholkua hobetu zuen. Handik gutxira, Salomonek oso kontratu oparoa jaso zuen. AT&T-ren telefonia mugikorreko filialaren burtsarako irteeran parte hartu zuen Salomonek. Eragiketa horretan 10.600 milioi dolar egon ziren jokoan, eta Salomonek 44,8 milioi dolarreko komisioa eskuratu zuela uste da.

Fiskala, orain, telefonia konpainiaren gaineko aholku hobekuntzan Sanford Weillsek parte hartu ote zuen ikertzen ari da.

Albisteok dardara eragin zuten Wall Streeten, eta ixteko ordu bat falta zenean Dow Jones 183 puntu galtzen ari zen 9000ko marra iraganda.



TOM MIHALEK / EPA

George Bushen gobernuak %30era arteko aduana sariak ezarri zituen martxoan altzairu inportazioen gainean, bertako sektorea babesteko.

Europako Batasunak AEBen aurkako salaketari eutsiko dio, 'altzairuaren gerra' dela eta

Washingtonen aurkako errepresalia komertzialak ere ez ditu baztertu Bruselak

Agentziak | BRUSELA

Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) agintaritzak herenegun jakinarazi zuen altzairuzko 178 produkturen inportazioen gaineko aduana sariak kentzeko erabakia. Erabaki hori ontzat hartu du Europako Batasunak, (EB), neurri honen onuradun nagusietako bat baita, Japoniarekin batera. Washingtonen adiskidantzazko keinua ontzat hartu arren, Bruselak eutsi egin dio Munduko Merkataritzaren Erakundean (MME) AEBen aurkako salaketari, bere garaian muga sari horiek ezartzeagatik aurkeztua.

Washingtonen duela bost hilabete ezarri zituen atzerriko altzairu inportazioen gaineko %30era arteko tasa horiek, bertako altzairugintza babestearren, une honetan larrialdian

dago eta. Europako Batasunak eta Japoniak, ordea, haserre bizian hartu zuten erabakia, horrelako neurriak nazioarteko merkataritza librearen aurka doazelako eta lurralde hauetako industriarentzat kaltegarriak direlako. Protestak protesta, George Bushen gobernuak eutsi egin zion ezarritako aduana sariari, altzairugintza krisialdian dagoenean horrelako neurriak bidezkoak direla argudiatuta.

Europako Batasuneko esportazio asko zigor neurri horietatik salbuetsita geratu dira atzoko erabakiaz geroztik, %50etik gora hain zuzen. Hala ere, Bruselak uste du asko direla oraindik «gehiegizko tarifa» horien azpian geldituko diren produktuek. Horregatik, EBk ez du MMEn aurrean aurkeztutako salaketa kentzeko asmorik. Ildo horretatik, MMEn erabakia

2500 MILIOI EURO

Altzairua. AEBek ezarritako altzairu inportazioen gaineko aduana sariaren hasierako kostua 2.500 milioi eurotan zenbatu zuen Bruselak Europako industriarentzat. Baina AEBek onartutako azken 178 salbuespenekin, 727 produktu daude salbuetsita, EBren esportazioen %50.

auzi horren inguruan datorren urterako espero da. Era berean, Bruselak ez du AEBen aurkako errepresalia komertzialak ezartzeko aukera baztertu.

EBren balizko errepresaliak

Horretaz, Europako Batzordeak txosten bat aukeztuko die irailean Hamabostei, eta bertan AEBen babes neurrien pareko

errepresalia komertzialak proposatuko ditu, betiere herenegun ezagututako salbuespen neurriak kontuan hartuta.

Europako Merkataritza komisario Pascal Lamy Bruselaren poza agertu zuen atzo, AEBek erabakitako azken salbuespen zerrendagatik. Hala ere, Lamy Bushen gobernuari «gainerako muga sariak lehenbailehen kentzeko» eskatu dio, bestela «MMEk AEBen neurriak kondanatzeko erabakia hartu bezain laster egin beharko du». Izan ere, AEBek auzia galduko duela ziurtatu du Lamyk, eta MMEk EBri arrazoia emango diola.

Bruselako arduradunak adierazi duenez, Washingtonen egin beharreko hurrengo urratsak «altzairugintza berregituratzea» izan behar du, «industria hori beti babestuta egon baita».